

Mehaine

Aurkibidea

Udalerria: Mehaine

Sarrera



Nafarroa Behereko erdialdeko udalerria, Arberoa eskualdekoa. Udalerri hauek ditu mugakide: Oragarre iparraldean; Amorotze-Zokotze ipar-mendebaldean; Donamartiri mendebaldean; Bithiriña hego-ekialdean; Armendaritze hego-mendebaldean; eta Landibarre hegoaldean. (Argazkia www.eke.eus webgunetik hartua)

- **Biztanleak:** 261
- **Euskaldunak:** %23,66

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **14**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **13**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Michel Mendibil (1938-2014)



Michel Mendibil Mehainen sortu zen 1938an, 6 haurrideetako familia batean. Gurasoek ez omen zekiten euskara besterik (aitak 1914ko gerlan ikasi omen zituen frantseseko zenbait hitz). Mehainen ibili zen eskolan 10 urtera arte. Gero Baionako "Maîtrise" deitu apezgaien kolegiara joan zen (Uztaritzeko seminariara joan aitzin hara joaten ziren mutil gazteak), baina berarentzat hango diziiplina gogorregia zela-eta utzi egin zuen eta 13 urterekin etxera itzuli zen. Hasieran etxean laguntzen zuen. Gero, Gabadin mutil zegoen anaiak gerlara joan behar izan zuen eta haren ordeztatu joan zen Gabadira. 20 urtez (14 urtetik 34 urtera) egon zen mutil Gabadin. Herri horretan berean ezkondu zen 1967an eta bertan erosi zuen Ixalegoitia etxaldea. Hiru haur ukan zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. « Maîtrise » deitu apezgai kolegiara Baionan 1950. hamarkadan (MEH-001/001)

Maîtrise » deitu kolegiara apezgaiantzat egin zen. 6. eta 5. urteak egiten ziren hor Uztaritzeko Seminarioan sartu aintzin. Hogoi ta hamar bat mutiko biltzen ziren hor, kantu gregorianoak ikasten zituzten eta bizi gogorra eramaten. Michel Mendibilek ez zuen jasan ahal izan horgo bizia, askatasuna sobera maite zuelako eta urte baten buruan utzi zuen.

2. Mutilgoa Gabadin (1952-1958) (MEH-001/002)

Amikuzeko mutiko gazteak, eta seguraski Euskal Herri osokoak, goizik hasten ziren mutil. Mutila urtean behin pagatua zen. Bainan bazuen ere beste diru

iturri bat, « buztan saria » deitzen zena, ahatxe edo behi bat saltzean nagusiak edo batzutan saltzaileak ematen ziona. 1950. hamarkadan bazen Gabadin apez bat 14-20 urtetako mutiko gazte horien hezkuntza sentimentalaz arduratzen zena.

3. Algeriako gerla (1958-1967) (MEH-001/003)

Lekukotasun guzien arabera, gazte gazterik joaiten ziren Algeriara. Michel Mendibilek doi doa 20 urte zituen Atos itsasuntzia hartu zuelarik, 3000 lagunekin, Algeriara heltzeko 48 orenen buruan. Han beste mundu bat aurkitu zuen. Bi urteren buruan etxera itzultzea aments bat bezala bizi izan zuen, nahiz eta Euskal Herriko bizia arrunt aldatua aurkitu zuen.

4. Euskaldun Gazteriaren mogimendua (MEH-001/004)

Bigarren gerlatik landa abiatu zen Euskal Gazteriaren mugimendua (1950 inguruan, Garikoitzenea laborantza eskolaren idekitzearekin batera). Apezak ziren mugimendu honen ardatzak : Amikuze aldean Etxegoien Aransusiko erretorra, Challet Donapaleuko bikarioa, Eiherabide Arberatzeko erretorra bai eta ere Pagola apeza. Helburua zen gazteak elgarretaratzea beren gizarte hurbileko gai batzueri buruz gogoetak eraman zitzaten. Lurraren besta antolatzen zuen ere urtero Euskaldun Gazteriak.

5. Laborantxaren aldaketak 1960etik goiti (MEH-001/005)

1960 hamarkadan, maileguak aski errexki lortzen zituzten laborariak. Garai hartan, laborantxako mozkinak ere prezio onean saltzen ziren. Michel Mendibilek lehenik behi hazkuntza egin du eta gero ardiena, bai eta ere hazitako artoa 1998 artio. 1955 inguruan sartu den hazi honek bere historia badu Amikuze aldeko laborantxaren eboluzioan.

6. Ogi joitea 1950. hamarkadan (MEH-001/006)

Egun hortan adinetakoek ogi bihia zakuen barnean biltzen zuten ; gaztek aldiz lastometak muntatzen. Alegrentziatzko eguna zen, jateko eta arno onarekin (oilo salda, ahatekia).

7. Arto xuritzea (MEH-001/007)

Arto xuritzea arratsetan iragaiten zen, ezkaratzean. Gazte eta adinetako, xahar eta gazte lanean ari ziren hor, kantu berezi batzu emanez. Michel Mendibilek arto xuritzetako laupabost kantu ematen dizkigu zuzenean.

8. Mahastiari eta mahatsari lotu lanak (MEH-001/008)

Hamabost gizon gazte biltzen ziren mahasti aitzurretan. Mahats moxtea xaharren lana zen. Mahats biltzea familian eta bizpairu auzoekin egiten zen. Arno egitea beste afera bat zen. Mahatsa zangoz lehertu eta, zuhana handi batetara ixurtzen zen eta han eraikitzen uzten. Eraikin eta, graspa ateratzen zen eta brentsan ezartzen, azken jusa eman zezan.

9. Herriko bizia eta elizaren eragina Gabadin 1960 hamarkadan (MEH-001/009)

Herria elizaren erritmoan bizi zen : rogazioneak maiatzean, Besta Berri ekainean, igande guzietako mezak eta bezperak, bezperatik landa pilota partida edo birlen jokoa... Elizako serora (andere serora) hor zen gazten zaintzeko. Eliza garbitzen zuen eta zeinuak joiten. Oiloak eta baratzea bazituen eta etxe bakoitzak gaitzuru bat ogi eta arto parte ematen zion (eiherazainari bezala).

10. Jondonibane sua eta Euskal Herriko sinesteak (MEH-001/010)

Haurrean, 1940-1950 urteetan, Michel Mendibilek Jondonibaneko suaren gainetik jauzi egiten zuen. Iguzkia atera aintzin, elorri xuriarekin eta ogi buru andana batekin gurutze bat egiten zuten. Udaberriko errito hauek bezala, sineste frango baziren lehenago, erlijioa eta paganismoa nahasten zituztenak. Michel Mendibilek arima erratien, laminen, sorginen ixtorio batzu kondatzen dizkigu.

11. Pantzarte Eguna (Ihauteriak) (MEH-001/011)

Gabadin, beste herri askotan bezala ihauteriz, gazteak ibiltzen ziren etxez etxe janari keta. Arratsaldean dantzaldi bat bazen herritarrentzat. Anjelusak jotzen zuenean, neskatoak etxera joaiten ziren, gizonak aldiz ostatuan egoiten.

12. Alaguardia Gabadin (MEH-001/012)

Gabadiko Alaguardia, Gamueko jauregiaren bisean bis aurkitzen den etxe gotor bat da (zubi bat bazen lehenago bien artean). Alaguardiak Gamueko jauregia zaintzen zuten soldadoak aterbetu izan ditu. Mendetan zehar, laborari etxea bilakatu du. Gaurregun, ez da gehiago etxaldea baizik eta bizitegi bat.

13. Ehüleko lurrak (MEH-001/013)

Nafarroako Erresumarenak omen ziren Ehüleko lurrak bai eta ere Amikuzeko oihan guzia funtsean. Napoleon Lehenaren garaian, 300 hektara hauek banatuak izan dira Labetze, Ilharre, Gabadi, Gamue-Zohazti, Arboti eta Escoseko herrien artean. Lurrik gabeko artzainek zuzten lehengo denboretan erabiltzen. Geroztik lur horiek banatuak izan dira 5 herrietako familien artean .

14. Ixalegoitia, Gabadiko zurezko etxea (MEH-001/014)

Joana Labriten garaian, protestantek ainitz etxe erre zituzten Amikuzen. Amikuztarrek etxe berriak eraiki zituzten : hauek, Ixalegoitia bezala, zurezkoak ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com